# KOMIKIAK LEHIAKETAKO



# ERABAKI ZURE APUSTUA

Gazteei eta apustuei buruzko kanpaina

www.onlinezurekin.org

Antolatzailea:

ASOCIACIÓN ALAVESA DE JUGADORES EN REHABILITACIÓN
ERREABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

Laguntzailea:

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Laguntzailea • Argitaratzailea

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

## LEHIAKETAREN OINARRIAK

Kategoriak:

- 12-17 urte bitarteko gazteak
- 18-30 urte bitarteko gazteak

## GAIA

GAZTEAK, AUSAZKO JOKOAK ETA APUSTUAK (ONLINE/OFFLINE). JOKO ARDURATSUA.

### HIZKUNTZA

Euskara edo gaztelania

### FORMATUA

Lan originala, zuri-beltzean edo koloretan, teknika askea. DIN A3.

### MODALITATEAK

12-17 urte bitarteko gazteak.- 1-2 orrialde DIN A3 (29,7x42)
18-30 urte bitarteko gazteak.- 2-4 orrialde DIN A3 (29,7x42)

## AURKEZPENA

Lanak izenburu batekin aurkeztuko dira eta goitizen batekin sinatuko dira. Gutun-azal itxi batean datu hauek barneratuko dira: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, adina eta posta elektronikoa. Lanak bakarka zein taldean aurkez daitezke. Azken kasu horretan, partaide guztien datuak barneratuko dira gutun-azalean.

Lanak ASAJER elkarteak Alaba Jeneralaren kalean (25. zenbakia, 1. esk.) duen egoitzan aurkeztuko dira.

### AURKEZPEN-EPEA: 2012KO MARTXOAREN 2ERA ARTE.

### LANEN JABETZA

Saritutako lanak ASAJER elkartearen jabetzara pasako dira, eta honek egiten dituen kanpainetan, haiek erabiltzeko, kopiatzeko eta hedatzeko eskubideak gordeko ditu, egilearen aipamena eginez. Lan ez sarituak, ASAJER elkartearen egoitzan jaso ahal izango dira, lehiaketa amaitu eta hilabeteko epearen barnean.

## SARIAK

**12-17 urte bitarteko kategoria:**

Egile onena................................. 200 €ko Txartela
Aipamen berezia......................... 100 €ko Txartela

**18-30 urte bitarteko kategoria:**

Egile onena................................. 300 €ko Txartela
Aipamen berezia......................... 150 €ko Txartela

Sari-banaketa:
2012ko apirilaren 27an, ostiralez. Aurrerago emango da sari-banaketa egiteko lekuaren berri.

### EPAIMAHAIA

Hauek osatua:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko ordezkari bat (Arabako Foru Aldundia)
- Gasteizko Udaleko ordezkari bat.
- Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkarteko (ASAJER) presidentea
- Komiki arloko artista bat

### BESTELAKO ZEHAZTAPENAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Antolakuntzak lehiaketaren funtzionamenduari begira egoki ikusten dituen aldaketak egin ditzake. Antolakuntzak saritutako lanak argitaratzeko eskubidea gordetzen du eta haien jabetza izango du. Dena den, ez da lanek jasan ditzaketen ustekabeko edo nahi gabeko kalteen erantzule izango.

www.onlinezurekin.org

